




# ELGA-REN AURREIKUSPENAK

## ELGAK dezelerazio globala aurreikusten du tentsio energetikoek dirauten bitartean

### MUNDUKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



ELGaren ustez, Ekialde Hurbileko gatazkari lotutako hornidura-disrupzioen iraupenak baldintzatuko du munduko ekonomiaren bilakaera hurrengo hiru hilekoetan. Jarduera globalak urte hasieran erresistentzia ahalmen nabarmena erakusten bazuen ere, energia hornidurako zailtasunak eta ziurgabetasunaren areagotzea pixkanaka eragiten ari dira kontsumoari, inbertsioari eta merkataritzari buruzko erabakietan. Ondorioz, munduko hazkundeak intentsitatea galduko du 2026an eta %2,8an kokatuko da, 2025ean erregistratutakoa baino sei hamarren gutxiago.


### ELGAREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2025	2026	2027	2026	2027
<b>Munduko ekonomia</b>	<b>3,4</b>	<b>2,8</b>	<b>3,1</b>	<b>-0,1</b>	<b>0,1</b>
AEB	2,1	2,0	1,8	-	0,1
Eurogunea	1,4	0,8	1,2	-	-
Alemania	0,3	0,7	1,1	-0,1	-0,4
Frantzia	0,9	0,7	0,8	-0,1	-0,2
Italia	0,5	0,5	0,6	0,1	-
Espainia	2,8	2,2	1,7	0,1	-
Erresuma Batua	1,4	0,9	1,1	0,2	-0,2
Kanada	1,7	1,2	1,7	-	-
Japonia	1,1	0,6	0,8	0,3	-0,1
Txina	5,0	4,5	4,3	0,1	-
India	7,6	6,3	6,4	0,2	-
Brasil	2,3	1,6	2,1	0,1	-




## AEBETAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




## EUROGUNEKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




## ALEMANIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



## ESPAINIAKO BPGA


Urte arteko aldakuntza tasa



Aurreikuspenak bereziki sentikorrek dira energia merkatuen bilakaerarekiko; izan ere, pixkanakako normalizazioak 2026an galdutako dinamismoaren zati bat berreskuratzea ahalbidetuko luke. Estatu Batuak %2,0 haziko dira 2026an eta %1,8 2027an. Eurogunea, berriz, %0,8 haziko da 2026an eta %1,2raino hobetuko da 2027an. Bestalde, 2026an inflazioa %3,7ra iritsiko da AEBetan eta %2,8ra euroaren eremuan, eta biek ala biek 2027an %2,1era eta %2,4ra jaitea lortuko dute, hurrenez hurren. Erakundeak azpimarratu duenez, egungo nahasmenduak luzatzeak ondorio kaltegarriagoak izango lituzke munduko ekoizpenean, enpleguan eta enpresa konfiantzan.

## TXINAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: ELGA.